


**ABIADURA-ERREDUKTOREEN MAHAI TEKNIKOAK**  
**UDAL TALDE TEKNIKOAREN PROPOSAMENA. GAIA:**  
**ABIADURA-ERREDUKTORE DESBERDINEN**  
**OINARRIZKO PARAMETROAK**

**PASABIDE GORATUAK**



SECCION A-B = A-B SEKZIOA

SUMIDERO = ESTOLDA-ZULOA

Luzera ( $L$ ) tranpagainaren luzera bera izango da.


Altuera ( $h$ ) espaloiak berak zehaztuko du; ahal dela, ez da 12 cm-tik gorakoa izango, kalearen ardatzean neurtuta.

Arrapalaren gehieneko malda ( $p$ ) beheko taulan zehaztu da, kale bakoitzeko abiadura eta maldaren arabera.

Kaleko abiadura	Kalearen malda	Arrapalaren malda ( <i>p</i> )
50 km/h	> %5	%5
	< %5	%7
30 km/h	> %10	%5
	< %10	%10

### KUXIN EUOPARRA

Kuxinak 3,00 m luze, 2,00 m zabal eta 7,00 cm-ko altuera izango ditu gehienez, eta bidearen erdigunean jarriko da.




### IN SITU AREKA

"*In situ*" abiadura-erreduktoreak segmentu zirkularreko zeharkako sekzioa izango du, ondorengo neurriekin:

Altuera (*h*): 6 cm ± 1cm

Luzera (*L*): 3 m ± 0,20 m



Hala ere, *in situ* kuxin berlingarrei dagokienez, Udalak horiek zabaltzeko aukera izango du zenbait kasutan, hala nola, noranzko berean errei bat baino gehiago dituzten bideetan edota kontrako noranzkoa duten bi erreitako bideetan.

## ERREDUKTORE AURREFABRIKATUA

Aurrez fabrikatutako abiadura-erreduktoreen neurriak dagokion kaleko abiadura-mugaren arabera zehaztuko dira, ondorengo taularen arabera:

Abiadura (km/h)	Luzera (cm)	Altuera (cm)
50 km/h	60	3
40 km/h	60-120 artean	5
30 km/h	60-120 artean	7

Hala ere, udalek behar bezala baloratu beharko lituzkete: alde batetik, erreduktoreak eurak orokorrean, eta, bestetik, kuxin edota bandak bezalako elementu aurrefabrikatuak bereziki, ondo jarrita dauden ala ez egiaztatzeko. Balorazio horrek zenbait aldagai hartu beharko ditu kontuan, hala nola, erreduktoreak kentzea eskatuko luketen kirol-proben maiztasuna, mantentze-lan egokia, bandalismoa, lehenetsitako erabilera-mota...

## ABIADURA-ERREDUKTOREAK ERAIKITZEA

---

Abiadura-erreduktoreak eraikitzeke orduan, jarraian zehaztutako baldintza teknikoak hartuko dira kontuan:

- Errepidearen eta abiadura-erreduktorearen arteko hegala 0,5 cm-ko altuera izango du gehienez. Horretarako, eraikitze-prozesuan errepidearen ardatzarekiko zeharkako muturrak *kutxatu* egingo dira, 3 eta 4 cm arteko gutxienerako sakoneran eta 50 cm-ko zabalerarekin.
- Arrapala eta malda biribildu gabe gauzatuko dira; galtzarekin eta tranpagainarekin lotura txiki baten bidez bat egiten duen planoan izan behar da, alegia.
- Galtzadako urak drainatzen direla bermatzeko, eta abiadura-erreduktorearen muturretan ur-putzurik sortzen ez dela egiaztatzeko, eraikitze-lanek ondorengo konponbideren bat baliatuko dute:
  - Euri-urak jasoko dira, erreien albo banatan kokatutako estolda-zuloen bidez.
  - Pasabidearen hegaletan uren ebakuazioa bermatuko duten hodiak jarriko dira, oinezkoen pasabidearen eta espaloia arteko lotura kaltetu gabe.

- Abiadura-erreduktoreak egiteko erabiltzen diren materialek behar besteko kalitatea izan beharko dute, egonkortasuna, galtzadarekiko atxikipena, forma eta iraunkortasuna bermatzeko. Hori horrela, eraikitze-lanetarako material egokiak izango dira hormigoia eta, batik bat, asfaltozko osagaiak dituzten materialak.
- Eraikitze-lanetan erabilitako materialak lerraduraren aurrean daukan erresistentzia-koefizientea (CRT) 6 edo handiagoa izango da, hala baitago jasota errepideak eta zubiak egiteko lanei dagokien Baldintza Tekniko Orokorren Pleguan (PG3).
- Abiadura-erreduktoreak ezarri direla jakinarazten duten seinaleak jarriko dira, modu honetara:

.-Seinale horizontalak: triangelu bat margotuko da sarbide-arrapalen gainean, krokisetan grafikoki adierazi den eran.

.- Seinale bertikalak: abiadura-erreduktoreak datozela ohartarazten duten seinaleak jarri ahalko dira, bi noranzkoetan.

Galtzadara atxikitzen diren moduluez osaturiko erreduktore aurrefabrikatuak erabiltzen diren kasuan.

Muntatzeko unean, modulu guztiak elkarrekin lotu edota mihizatuko dira, aurreikusi den instalazioak beharko lukeen formara egokitu arte. Instalatu ahal izateko galtzadara atxiki behar diren moduluak torloju edota itsasgarri kimikoen bidez finkatuko dira, sarrera-hegalei dagozkien tolerantziak (hurrengo atalean aipatzen direnak) errespetatuz, eta ibilgailuen gurpilek eragiten duten inpaktuaren aurrean egonkortasuna eta egokitasuna bermatuz.

Finkatze horretan erabili diren torlojuak erreduktorean bertan ondo sartuta geratuko dira, eta gainazalean ez da inolako elementu edo zatirik agertuko.

**Proposamen teknikoa; EUDEL, Euskadiko Udalen Elkartea,**

**2017ko otsailaren 17a.**